

TOPONIMIA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

2003ko abendua

Aurkibidea

1999-2003 epealdiaren balantzea

- Toponimia-metodologiako eskuliburua 04
- Terminologia toponimikoaren glosarioa 05
- Izen geografikoen glosarioa 06
- Ikastaroak: prestakuntza berezitua (1)..... 07
- Ikastaroak: prestakuntza berezitua (2)..... 08
- Euskaltzaindiaren inbentarioa 09
- Bizkaiko toponimia berrikusi eta zuzentzea 10
- Toponimia jasotzeko fitxa-eredua sortu eta zabaltzea 11
- HPSren toponimia-datutegia berrikusi, zuzendu eta eguneratzea... 12
- Bizkaiko toponimiaren koordenatu geografikoak eskuratu eta datu-basean sartzea 13
- HPSren datutegia Internet bidez zabaltzea 14
- Toponimia normalizatzeko arauak..... 15
- Euskal Autonomia Erkidegoko Biztanle-entitateak 16
- Udalek toponimia-lanetan erabiltzeko aplikazio informatikoa..... 17
- Toponimia Batzorde-atal Bereziaren txosten teknikoa (1) 18
- Toponimia Batzorde-atal Bereziaren txosten teknikoa (2)..... 19
- Izen ofizial desegokien aldaketa bultzatzea..... 20
- Aldatutako izen ofizialak zabaltzea..... 21
- IGNrekiko lankidetzatza 22

2004-2005 jarduketa-plana: lan berriak

- Araba eta Gipuzkoako toponimoak berrikusi, zuzendu eta horien hizkuntza-normalizazioa egitea..... 24
- Toponimiaren hizkuntza-normalizazioko arauak eguneratu eta zabaltzea 25
- Toponimia kartografian erabiltzeko irizpideak finkatzea 26
- HPSren toponimia-datutegia berrikusi, zuzendu eta eguneratzea... 27
- HPSren datu-basea Internet bidez zabaltzea 28

- Toponimia-erabiltzaileen eta -sortzaileen direktorioa 29
- Izen ofizial desegokien aldaketa bultzatzea eta zabaltzea 30
- EAeko biztanle-entitateen izen ofizialen argitalpen eguneratua
kaleratzea 31
- Kartografia eta toponimia (1) 32
- Interneteko kartografia eta toponimia (2)..... 33
- Iparraldeko toponimia 34
- Toponimian zeinu ortografikoak erabiltzeko arauak..... 35

1999-2003 EPEALDIAREN BALANTZEA

Toponimia-metodologiako eskuliburua

Lana: *toponimia-metodologiako eskuliburua.*

Egilea: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.

Deskribapena: Eskuliburuak toponimia-lanaren fase guztietan erabili beharreko metodologia azaltzen du: artxibo-lanak, landa-lana egin aurreko zereginak, toponimia-inkestak, kartografia, geografia-normalkuntza, hizkuntza-normalkuntza eta abar.

Argitalpen data: Nerea Mujikak idatzia HPSren enkarguz; 2002. urtearen amaieran argitaratu zen, *Toponimia eta kartografia, oinarrizko eskuliburua* izenburupean

Oharrak: erakunde guztiei helarazi zaie.

Terminologia toponimikoaren glosarioa

Lana: *Terminologia toponimikoaren glosarioa*

Egilea: Naftali Kadmon.

Deskribapena: "Glossary of toponimic Terminology" lanaren euskarazko itzulpena, barne-erabilerarako soilik. Toponimia-lanari buruzko hainbat termino biltzen ditu, bai eta lan horretan zehar erabilitako termino informatikoak ere. Nazio Batuen izen geografikoetarako Aritu-batzordearen (GENUNG) terminologiako lan-taldeak 1994an behin betiko onartu zuen.

Argitalpen-data: momentuz ez da argitaratzea aurreikusten.

Oharrak: UZEIk itzuli zuen HPSren enkarguz.

Izen Geografikoen Glosarioa

Lana: *Izen Geografikoen Glosarioa.*

Egilea: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Deskribapena: EAEko kartografiako toponimia normalizatzeko eta "homogeneizatzeko", generikotzat proposatutako termino geografikoak biltzen ditu. Termino guztien definizioa azaltzen du, bai eta terminoon baliokideak gaztelaniaz eta frantsesez ere.

Argitalpen-data: 2001eko azaroa

Oharrak: UZEIk egin zuen HPSren enkarguz; aditu-batzorde bat aritu zen lanean eta, horrek ontzat eman ondoren, EUSKALTERMen sartu zen (www.euskadi.net/euskalterm).

Argitalpena ohiko erakundeei banatu zaie eta gaiaren aditu eta ikerleei ere bidali zaie.

Ikastaroak: prestakuntza berezitua (1)

Lana: *I Toponimia-mintegia*

Egilea: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.

Deskribapena: toponimiaren hainbat alderdiri buruzko ikastaroa, Quebec-eko Commission de Toponymie-ko bi adituk emana, Henri Dorion eta Christian Bonnelly-k hain zuzen. Ikastaro hau Eusko Jaurlaritzak Quebec-eko Gobernuarekin sinatutako hitzarmenaren barruan sartu zen, bai eta hainbat komunitatetako hizkuntza-politikaren arduradunen sarearen proiektuko II. fasean ere.

Data: 2000ko ekainaren 2tik 16a bitartean, Donostian.

Oharrak:

Ikastaroak: prestakuntza berezitua (2)

Lana: *Toponimia-ikerketaren metodologiari buruzko ikastaroa*

Egilea: DEIKER Institutua

Deskribapena: HPSk DEIKER Institutuari kontratatu zion lana, hain zuzen, Bizkaiko toponimia jaso eta berraztertzeke lana egin behar zuten guztiei zuzendutako ikastaroa. Ikastaroaren edukia: landa-lana, artxiboak, kartografia eta abar.

Data: 2001eko ekaina-uztaila, Bilbon.

Oharrak:

Euskaltzaindiaren inbentarioa

Lana: *Euskaltzaindiak toponimiaren gainean egindako lanen inbentarioa*

Egilea: Euskaltzaindia

Deskribapena: ACCESSeko datu-basea, Euskaltzaindiak toponimiaren inguruan egindako lanak eta txostenak biltzen dituena.

Data: 2002. Ez dago aurreikusita argitaratzea.

Oharrak: euskarri informatikoan egindako lana.

Bizkaiko toponimia berrikusi eta zuzentzea

Lana: *Bizkaiko toponimia berrikusi eta zuzentzea.*

Egilea: HPS

Deskribapena: HPSren datu-basean azaltzen den Bizkaiko toponimia berrikusi, eta landa-bilketa berriz egin da. Horretarako, kode geografiko berriak aplikatu dira, bai eta Euskaltzaindiak onetsitako hizkuntza-normalizazioko arau berriak ere. Lan berri horretan kartografia txertatu da.

Data: 2003ko ekaina

Oharrak: HPSk Deustuko Unibertsitateko DEIKER Institutuari kontratatu zion lan hori. Bestalde, Sociedad de Estudios Históricos de Navarra-k antolatutako Onomastikari buruzko Jardunaldietan aurkeztua izan da (Iruñea, 2003ko azaroa).

Toponimia jasotzeko fitxa-eredua sortu eta zabaltzea

Lana: *Toponimia jasotzeko fitxa-eredua sortu eta zabaltzea.*

Egilea: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Deskribapena: HPSko datu-basea erreferentziazat harturik, administrazio-mota guztientzat nahiz entitate pribatuentzat toponimia jasotzeko fitxa-eredu bat sortu da. Udalek erabiliko duten aplikazio informatikoan sartuta dago.

Oharrak: Toponimia-metodologiako eskuliburuan jasota dago eredu hau.

HPSren toponimiako datu-basea berrikusi, zuzendu eta eguneratzea

Lana: HPSren toponimia-datutegia berrikusi, zuzendu eta eguneratzea.

Egilea: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.

Deskribapena: H56 toponimia-aplikazioa SQL-Windows-etik Visual Basic-era migratu da. Halaber, kode geografikoak aldatu dira glosarioaren edukiaren arabera.

Data: 2003.

Oharrak: Datu-basearen aplikazioa bera eta edukia eguneratzen ari gara etengabe.

Bizkaiko toponimiaren koordenatu geografikoak eskuratu eta datu-basean sartzea

Lana: Bizkaiko toponimiaren koordenatu geografikoak eskuratu eta datu-basean sartzea

Egilea: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Deskribapena: Koordenatu geografikoak Bizkaiko bilketa-lan berrian daude sartuta. Lan horrek kartografia digitaleko sistema batekin erlazionatzen du toponimia

Oharrak:

HPSren datu-basea INTERNET bidez zabaltzea

Lana: *Toponimia Internet bidez zabaltzea.*

Egilea: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.

Deskribapena: HPSren toponimia-datutegia, EAEko biztanle-entitateen izenak eta toponimiari buruzko zenbait dokumentu Eusko Jaurlaritzak Interneten duen web orrian sartu dira (www.euskadi.net/euskara_eaetoponimia), bertatik on-line kontsultatzeko.

Data: 2002-2003.

Oharrak: Egun, web orria eguneratzea ari gara.

Toponimia normalizatzeko arauak

Lana: *Toponimia normalizatzeko arauak.*

Egileak: Euskaltzaindia eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.

Deskribapena: Toponimia normalizatzeko arauak idazteko, honako hauek hartu ziren oinarritzat: Euskaltzaindiaren "*Toponimia txikia arautzeko irizpideak*" (2000) argitalpena eta EAEko toponimia datu-baseko toponimoak normalizatzeko aplikatu ziren irizpideak.

Data: 2002.

Oharrak: Arauak eguneratu behar dira azken aldaketak kontuan izanda, eta Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeari onespena eskatu.

Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle-entitateak

Lana: *Euskal Autonomia Erkidegoko Biztanle-entitateak.*

Egilea: Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordea

Deskribapena: Euskaltzaindiak egina, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin (HPSrekin) eta Euskadiko Udalen Elkartearekin (EUDELekin) lankidetzan. EAEko udalen eta bestelako biztanle-entitateen izen ofizialak eta euskarazko izenak biltzen ditu.

Argitalpen-data: EUDELek 2001ean argitaratua.

Oharrak: Euskaltzaindiaren web orrian (www.euskaltzaindia.net) kontsulta daitezke bai eta www.euskadi.net/euskara gunean ere

Udalek toponimia-lanetan erabiltzeko aplikazio informatikoa

Lana: *Udalek toponimia-lanetan erabiltzeko aplikazio informatikoa.*

Egilea: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Deskribapena: ACCESSen garatutako aplikazio informatikoa, toponimia-lanak egiteko asmoa duten udalei zuzendua. Eskatzen duten udal guztiei bidaltzen zaie, HPSko datu-basean udalei buruz dagoen informazioaz hornitua. Horrezaz gain, beharrezko diren oinarrizko taulak ere ematen zaizkie: kode geografikoak, mapak, dokumentu kartografikoak eta abar.

Data: 2003.

Oharrak: Egun, datu-base horren zabalkundea eten egin da, haren egitura eta edukia eguneratzen ari baikara.

Toponimia Batzorde-atal Bereziaren txosten tekniko (1)

Lana: *elementu generikoen oinarrizko kontzeptuei eta tratamenduari buruzko / euskal generikoen gaineko eztabaida-txostena.*

Egileak: Nerea Mujika eta Patxi Salaberri.

Deskribapena: Toponimia Batzorde-atal Bereziak generikoen arazoei buruz egindako txosten tekniko

Data: 2001.

Oharrak:

Toponimia Batzorde-atal Bereziaren txosten tekniko (2)

Lana: Zuzenbide publikoko lurralde-entitateen eta toki geografikoen (toponimoen) izendapen ofizialen gaineko eskumenak.

Egileak: José M^a Endemaño eta Jose Luis Lizundia.

Deskribapena: toponimia ofizialtzeko eskumen eta jardunbideei buruz Toponimia Batzorde-atal Bereziak egindako txosten tekniko.

Data: 2001.

Oharrak:

Izen ofizial desegokien aldaketa bultzatzea

Lana: *Izen ofizial desegokien aldaketa bultzatzea.*

Egilea: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.

Deskribapena: Euskaltzaindiak onartutako izenekin bat ez datozelako, udalen eta toki-entitateen izen ofizialak zuzentzeko edo EAEko hizkuntza ofizial bietara egokitzeko, azken urteotan egindako lanarekin jarraituko dugu. Ildo horretatik, 1999-2003 bitartean 10 udalen eta 61 kontzejuren izenak aldatu dira; entitate txikiei dagokienez, 82 aldatu dira eta 300 bat berraztertu dira.

Gaur egun, 3 udalerrik eta 13 kontzejuk dute espedientea irekita eta beste zenbait biztanle-entitate ari dira izena berrikusten

Data: etengabeko lana

Oharrak: normalean HPSk udalaren eta/edo toki-entitatearen izenean kudeatzen ditu egin beharreko legezko izapideak.

Aldatutako izen ofizialak zabaltzea

Lana: *Aldatutako izen ofizialak zabaltzea.*

Egilea: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.

Deskribapena: izen ofizialen gaineko informazio eguneratua izan nahi dutela adierazi eta horretarako helbide bat eman duten erakunde, enpresa eta/edo pertsonen aldatutako izenei buruzko informazioa zabaltzen eta jakinarazten segituko dugu. Horrez gain, toponimia ofizialaren erabilera okerra dela-eta jasotzen diren kexa eta oharrak bideratuko ditugu.

Data: etengabeko lana

Oharrak: lan hau toponimia-direktorioaren egitekoen artean sartzen da.

IGNrekiko lankidetzak

Lana: *IGNrekiko lankidetzak.*

Egilea: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.

Deskribapena: IGNk "Nomenclátor Geográfico Nacional"-a erregistratu eta kudeatzen du, bai eta "Mapa Topográfico Nacional"-ean bildu ere. Hori dela eta, HPS IGNrekin harremanetan jarri zen lankidetzak-bide bat irekitzeko asmoz.

EAEko toponimia-lana IGNren datu-basean sartzea da helburua, kontuan izanda, egun, lan hori dugula esku artean. Hori horrela, bi erakundeok lankidetzan aritzeko asmoa adierazi zioten elkarri gutun baten bidez.

Data: 2003.

Oharra: IGNk informazioa eskatu zigun Espainiak izen geografikoei buruzko Nazio Batuen Erakundearen biltzarrean aurkeztu zuen txostenerako.

Halaber, honako lan hauek egin ditugu IGNrentzat:

- Kartografia zuzendu: 1:165.000 mapa.
- EAEko eskualdeen izenak.
- Termino geografikoen laburtzapenak

2004-2005 JARDUKETA-PLANA: LAN BERRIAK

Araba eta Gipuzkoako toponimoak berrikusi, zuzendu eta horien hizkuntza-normalizazioa egitea

Lana: Araba eta Gipuzkoako toponimoak berrikusi, zuzendu eta horien hizkuntza-normalizazioa egitea

Egilea: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak lehiaketa publikoz esleitzekoa.

Deskribapena: Euskaltzaindiak toponimoak normalizatzeko arauak berraztertu eta onartu ondoren, Bizkaiko toponimian aplikatu ziren. Hurrengo pausoa Araba eta Gipuzkoako toponimia normalizatzea da HPSren datu-basea osatzeko

Data: 2004-2005

Oharrak: lehentasun handiko lana.

Toponimiaren hizkuntza-normalizazioko arauak eguneratu eta zabaltzea

Lana: *Toponimiaren hizkuntza-normalizazioko arauak eguneratu eta zabaltzea.*

Egileak: Euskaltzaindia eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.

Deskribapena: Hizkuntza-normalizazioko arauak Bizkaiko toponimia-bilketa berrian aplikatzean zenbait arazo antzeman ziren eta horrek aldaketak eragin zituen arau horietan. Hori dela eta, arauak eguneratu behar dira eta, ondoren, Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeari oniritzia eskatu. Azkenik, horien zabalkundea egingo da, bai Internet bidez (www.euskadi.net/euskara), bai argitalpen baten bidez.

Data: 2005

Oharrak: Arauok Araba eta Gipuzkoako toponimiaren hizkuntza-normalizazio berrian aplikatuko dira.

Toponimia kartografian erabiltzeko irizpideak

Lana: *Toponimia kartografian erabiltzeko irizpideak*

Egilea: HPS Adituen laguntzaz

Deskribapena: toponimoak (generikoak eta espezifikoak) kartografian erabiltzeko eta aukeratzeko irizpideak lantzea.

Data: 2005

Oharrak: Bizkaiko lan berriaren txostenean toponimoak aukeratzeko behin-behineko irizpide batzuk jasotzen dira (42-44 orr.), baina berraztertu eta finkatu egin behar dira. Horrez gain, generikoen erabilera ere aztertu behar da. Horretarako, txosten honetako 18. orrialdean aipatutako txosten tekniko hartuko da oinarritzat.

HPSren toponimia-datutegia berrikusi, zuzendu eta eguneratzea

Lana: *HPSren toponimia-datutegia berrikusi, zuzendu eta eguneratzea.*

Egilea: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.

Deskribapena: alderdi teknikoari dagokionez, H56 toponimia-aplikazioa SQL-Windows-etik Visual Basic-era migratu zen. Egun, datu-basearen teknologia ezarritako estandar berrietara egokitzen dihardugu, eta bezero-zerbitzariaren aplikazioa eta WEB orria berritzen ari gara.

Edukiari dagokionez, kode geografikoak berraztertu ziren glosarioaren edukiaren arabera; egun, Bizkaiko bilketa berria txertatzeko modua aztertzen ari gara.

Data: etengabe

INTERNET bidezko zabalkundea

Lana: *Internet bidezko zabalkundea.*

Egilea: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.

Deskribapena: Internet bidezko kontsulta eguneratu eta berrituko da (www.euskadi.net/euskara_eaetoponimia), Bizkaiko lan berrirako egindako aldaketen arabera.

Horretaz gain, aipatutako web gunean dagoen toponimiari buruzko gainerako dokumentazioa ere eguneratuko da.

Data: 2004an Bizkaiko lan berria. Araba eta Gipuzkoa egin ahala sartuko dira.

Toponimia-erabiltzaileen eta sortzaileen direktorioa

Lana: *Toponimia-erabiltzaileen eta sortzaileen direktorioa.*

Egilea: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.

Deskribapena: toponimia-erabiltzaileei eta sortzaileei buruzko informazioa jasotzen duen datu-basea; horren helburua da, batetik, arlo horretako informazioa zabaldu eta elkarri trukatea eta, bestetik, toponimia arloko koordinazioa. ACCESS aplikazio bat diseinatu behar da datu-basea sortu eta kudeatzeko.

Data: 2005

Oharrak: Lehenengo fase batean 1.266 galdetegi bidali ziren bai EAEko administrazio guztiei, bai enpresa pribatu zein publikoei. Guztira, 131 erantzun jaso ziren (%10,3). Behar den datu-basea sortu eta ditugun datuak sartu eta gero, bigarren erronda bat egin liteke galdetegia erantzun ez zutenei berriro bidaliz.

Izen ofizial desegokien aldaketa bultzatzea eta zabaltzea

Lana: *Izen ofizial desegokien aldaketa bultzatzea eta zabaltzea*

Egilea: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.

Deskribapena: Euskaltzaindiak onartutako izenekin bat ez datozen kasuetan, udalerrien eta biztanle-entitateen izen ofizialak zuzentzeko edo EAEko hizkuntza ofizial bietara egokitzeko, azken urteotan egindako lanarekin jarraituko dugu. Egun, 3 udalerrik eta 13 kontzejuk dute espedientea irekita eta beste zenbait biztanle-entitate ari dira izena berrikusten.

Halaber, aldatutako izenei buruzko informazioa zabaltzen eta jakinarazten segituko dugu izen ofizialen gaineko informazio eguneratua izan nahi dutela adierazi eta horretarako helbide bat eman duten erakunde, enpresa eta/edo pertsonen.

Horrez gain, toponimia ofizialaren erabilera okerra dela-eta jasotzen diren kexa eta oharrak bideratuko ditugu

Data: etengabe

Oharrak: normalean HPSk udalaren eta/edo toki-entitatearen izenean kudeatzen ditu egin beharreko legezko izapideak. Aldaketen zabalkundea toponimia-direktorioaren egitekoen artean sartzen da; direktorio hori sortzeko dago.

*EAEko biztanle-entitateen izen ofizialen argitalpen eguneratua
kaleratzea*

Lana: EAEko biztanle-entitateen izen ofizialen argitalpen eguneratua kaleratzea.

Egilea: HPS, EUDEL eta Euskaltzaindia

Deskribapena: Biztanle-entitateen izen ofizialak biltzen dituen liburuaren 2. argitaraldi eguneratu bat kaleratzea (EUDEL, Euskaltzaindia eta Eusko Jaurlaritzak lankidetzan egindako argitalpena da hori).

Data: 2005

Oharrak:

Kartografia eta toponimia (1)

Lana: *Toponimia-datutegiko informazioa Eusko Jaurlaritzaren kartografian txertatzea.*

Sarrera: Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak EAE osoko kartografia digitala du 1:10.000 eta 1:50.000 eskaletan, bai eta, hainbat eskaletan, EAEko eta zenbait udalerritako paperezko kartografia ere.

Helburua: Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak toponimia zuzena eta eguneratua izatea.

Proposamena: Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren eta Kultura Sailaren artean lankidetzaz-lerroa abian jartzea. Horren bidez, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak EAEko kartografian sartuko den toponimia sortu eta mantentzeko ardura hartuko du; Euskaltzaindiak onartutako arauak beteta normalizatuko da toponimia hori (biztanle-entitateen izen ofizialak eta HPSren toponimiako datu-basean sartutako toponimoak).
Sail bion adostasunez ezarriko da jardunbidea.

Data: 2005

Oharrak: dagoeneko harremanetan jarri gara.
Dena den, Ondarearen Zuzendaritzak dituen softwarea eta mapak ere aztertu beharko lirateke, zer nolako aukerak eskaintzen dituen jakiteko.

Interneteko kartografia eta toponimia (2)

Lana: *WEB orrian mapak eta toponimiako datu-basearen informazioa lotu eta, ahal bada, toponimia-bilatzaile interaktiboa sortu.*

Sarrera: Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak EAE osoko kartografia digitala edukiko du bere WEB orrian on-line kontsultatzeko.

Sail horren kartografia da egokiena gure datu-basearekin lotzeko.

Helburua: kartografia horrek toponimia zuzena eta eguneratua izatea eta, horrez gain, bilatzaile bat ere izatea, toponimia-bilaketak arin egin ditzan.

Proposamena: lan hau bi sailen arteko lankidetzaz-lerro batean sartuko litzateke.

Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren WEB orriak toponimiari buruzko informazioa eskaintzen duen kartografia du. Proposamen honen xedea informazio hori berrikusi, zuzendu eta osatzeko aukera izatea da.

Bestalde, komeniko litzateke kartografia horri toponimia-bilatzaile interaktiboa ezartzea; hala, bilatzailearen bidez, erreferentzia gurutzatu bat edo gehiago sartu eta toponimo jakin bat non dagoen automatikoki aurkitu eta dagokion orria azalduko litzateke, eskatutako toponimoa nabarmenduta duela.

Data: 2005

Oharrak: Beste hainbat sail eta zuzendaritzatan ere kartografia dago (Ondarea, Garraio Saila...), eta, beharbada, komeniko litzateke horietara ere hurbiltzea akordio baten bila.

Iparaldeko toponimia

Lana: *Iparaldeko toponimia.*

Egilea:

Deskribapena: Eusko Jaurlaritzak eta Obragintza Publikoan diren Ipar Euskal Herriko herri-aginteeek protokolo bat sinatu zuten 2003ko irailaren 3an. Horren barruan, euskararen elikadura sendotzeari buruzko paragrafoan, 3. puntuak honela dio: "Hizkuntza ondarea eta Toponimia berreskuratzea eta normalizatzea; horretarako tresnak, baliabideak, metodologia eta informazioa elkartrukatuz".

Data: 2005

Oharra: Egitasmo honetan EAEko toponimia-lanetan erabilitako metodologia eta irizpideak erabiltzea komeni da; era horretan, lan guztiak biltzen dituen toponimia-datutegi bakar bat sortu ahal izango litzateke.

Toponimian zeinu ortografikoak erabiltzeko arauak

Lana: *Toponimian zeinu ortografikoak erabiltzeko arauak.*

Egilea: HPS eta Euskaltzaindia.

Deskribapena: Biztanle-entitateen izen ofizialetan eta gainerako toponimoetan erabili ohi diren zeinu ortografikoen erabilera finkatu beharko litzateke eta normalizazio-irizpideetan sartu, hau da:
Zer esan nahi du gidoiak (-)? Zertarako erabil daiteke edo erabili behar da marra etzana, "/" ? Bada, horiek ondo definitu behar dira.

Data: 2005

Oharrak: